



Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi



HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi

Edizioa:

ALBOAN

Aita Lojendio, 2-2 - 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 435

Andia, 3 - 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173

Barañaingo etorbidea, 2 - 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302

Monseñor Estenaga, 1 - 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676

www.alboan.org

alboan@alboan.org

Argitalpenaren koordinazioa: **Virginia Basurto**

Edukien lantaldea: **Kattalin Marin, Zigor Uribe-Etxeberria, Miguel Ángel Navarro, Ainhoa De la Hoz, Virginia Basurto.**

Ilustrazioak: **Eneko González Yagüe**
www.ekilikua.com

Diseinua eta maketazioa: **Erreka Multimedia S. Coop**

Itzulpena: **Bakun S.L**

Inprimatzea: **ABZ Digital**

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, betiere helburu komertzialik ez badu eta iturriaren aipamena egiten bada.

ALBOAN Euskadiko eta Nafarroako jesulagunen nazioarteko lankidetzarako GKEa da.

Munduan desberdintasunak eragiten dituzten bidegabekeriak salatuko dituzten, ondasun erkidea sustatzen duen kultura eraikiko duten eta herri zein mundu mailan pobrezia dakarten egiturak eraldatuko dituzten herritarrak eratzearen alde lan egiten dugu. Hori lortzeko, mundu osoko pertsona eta taldeekin sarean biltzen gara.

Gure helburua pertsonen garapen integralari onurak dakartzkion hezkuntza diseinatzen aurrerapenak egitea da, hezitzaileekin batera. Berdintasuna, zuzentasuna, lankidetzeta eta zaintzaren balioak irakatsi behar dizkiegu haur eta gazteei, gure mundu globalak behar dituen herritar osoak izan daitezen.

Baina... zer da hezkidetzeta?

Hezkidetzeta hezkuntza mistoa izatea eta neska-mutilek gela berean ikastea baino askoz gehiago da; izan ere, neskak eta mutilak gela berean sartzeak —beharrezkoa izan arren— ez du bermatzen irakaskuntza bidezkoagoa eta berdinzaleagoa izango dela. Fernando González Lucini pedagogoak, hezkidetzeta definitzeko, “pertsonen sexua edozein izanda ere haien garapen integralari mesede egiten dion hezkuntza-prozesua” dela dio. Horren ondorioz, ikastetxe hezikidea zer den azaltzeko, esango genuke “sexuaren arabera ezberdintasun edo bereizkeria-mekanismo guztiak zuzentzen edo ezabatzen dituen dela, eta ikasleek egiazko berdintasun-giro batean beren izaera libreki garatzea ahalbidetzen duena, sexuaren eraginezko inolako baldintzatzaile edo mugarik gabe”.

Ideia horretan sakonduz, Marina Subirats Martori soziologoak, Espainian hezkidetzaren aintzindarietako bat denak, adierazten du “hezkidetzak une honetan helburu gisa duena bereizkeria-mekanismoak ezabatzea dela, eta ez bakarrik ikastetxeko egitura formalean, ideologian eta hezkuntza-praktikan ere bai”. Zentzu horretan, hezkidetzeta “ezin da izan soilik neskak eredu maskulinoan txertatzen dituen hezkuntza mota bat, hasieran proposatu zen moduan. Ez da hezkidetzarik egongo, lehen genero bakoitzari zegoziola jotzen zen arau kulturalen fusiorik ez bada egiten”.

ALBOANetik definizio horiek hartu ditugu, eta ikuskera horretatik ekin diogu proposamen hezikide bat eraikitzeari, gure laguntzarekin norabide horretan aurrera egin nahi duten gure inguruko ikastetxeentzat.

Eta zer da aurkezten dizueguna?

Eskuartean duzun hezkuntza-proposamena irakasleek ikasleekin ekitatearen norabidean lan egiteko tresna desberdinak izaten laguntzeko desiotik dator. Material honek proposamen grafiko bat du lagungarri gisa, eta lau gai edo lema handitan banatuta dago, gure ikasleekin kontzeptuak eta egoerak lantzeko abiapuntu gisa erabiltzeko.

Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi

Hauek dira gaiak:

Historiaren ezkutuko protagonistak

Berdintasuna egunerokotasunean eraikitzen da

Aniztasunean, berdinak

Berdinak al gara, benetan?

Proposamen grafikoak bi helburu ditu. Alde batetik, ikasgela edo ikastetxea girotzeko balio du. Beste alde batetik, poster bakoitzak bertan agertzen diren gaiak lantzeko balio du.

Koaderno honetako jarduerekin hasi aurretik, proposamen grafikoetan agertzen diren marrazkiei buruz ikasleekin eztabaidatzea proposatzen dizuegu. Modu horretan, paretak apaintzeaz gain, ikasleei ere giroan sartzen lagunduko diegu, lan-koadernoko proposamenak sakontasun handiagoz lantzen hasteko. Horretarako, ikasleei poster bakoitzak zer iradokitzen dien, saioan zeri buruz jardungo garen eta agertzen diren marrazkietatik zer ideia edo ondorio ateratzen dituzten galde diezaiekegu.

Koaderno honetan, lau gai horientzako jarduera bana aurkituko duzue hezkuntza-etapako ziklo bakoitzerako. Jarduerak irakasleek egoki iritzitako moduan lantzeko prestatuta daude, dela egun jakin batean zehar egiteko, dela ematen dituzten ikasgai edo proiektuetan zeharka txertatzeko.

Fitxetako bakoitzean jardueraren izenburua, garapena, gaitasunak, jarduera txertatzeko moduko ikasgaiak, jardueraren iradokitako iraupena eta beharrezko materiala adieraziko dira. Irakasleak, ikasleak eta haien ezaugarriak hobekien ezagutzen dituen aldetik, egokitu eta alda dezala beharrezkoa den guztia.

Azkenik, proposatutako saioak amaitu aurretik ebaluazio-, hausnarketa eta itxiera-tarte bat uztea proposatzen dugu, ikasleek saioaren ostean sentitu dutena adierazteko eta alderdi emozionala garatzeko.

Horretarako, saioen amaieran begiak itxi eta bihotzeko taupadak entzuten saia daitezen eskatzea proposatzen dugu. Jarraian, 5 arnasketa egindakoan (adinaren arabera alda daiteke kopurua), hiru espaziotan kokatzeko eskatuko diegu (edo hiru koloretako paperak eman diezazkiekegu, edo adierazi nahi ditugun sentipenak gehitu), hauek kontuan izanda:

- 1- Jarduerak askeago sentitzea eragin die (txikiak kasuan, pozik egoteaz ordeztu daiteke).
- 2- Arduraren bat sentitu dute edo ezagutzen ez zuten desberdintasunen batez ohartu dira.
- 3- Hirugarren espazioa, dibertigarria iruditu bazaie.

Espero dugu materiala interesgarria iruditzea eta atsegin handiz argitaratuko ditugu zuen esperientziak, martxan jartzen duzuenean.

Materiala interesatzen bazaizue eta hezkidetzan sakondu nahi baduzue, ikastetxearen hezkidetzaren arloko autodiagnostikoa egiteko aholkularitza eta laguntza eskainiko dizkizuegu, eta ondoren, alde batera utziak dituen alderdiak zuzentzeko edo hobetzeko plan bat egingo dugu. Jarri gurekin harremanetan educación@alboan.org helbide elektronikoan, bide hau egiten ari diren beste ikastetxeekin bat egiteko.



ANIZTASUNEAN, BERDINAK

Jardueraren izena

Munstro arrosa

Helburu zehatzak

- Aniztasunean berdinak izan gaitezkeela
- Ez dagoela neska edo mutil izateko era bakar bat, anitzak garela eta mundua ederragoa dela aniztasunean eta koloretsu, eta ez zuri beltza

Konpetentziak

- Komunikatzen ikastea
- Elkarrekin bizitzen ikastea
- Matematikako gaitasuna

Hezkuntza-etapa

Haur Hezkuntzako bigarren zikloa

Garapena

Alfonbran borobilean jarrita irakasleak ipuina irakurriko du. Guztien artean irakurritakoa ulertu duten jakiteko galderak egingo ditugu. Ze koloretakoa da munstroa? Badu hasieran lagunik? Nola sentitzen zen txuri-beltz munduan? Nola egiten zuen lo? Norekin?

Ze koloretakoak dira munstro arrosaren lagunak bukaeran? Nolako besoak ditu munstro urdinak? Ze sentimendu du? Gustuko dituzue besarkadak? Nork ematen dizkizuenak? Taldeko besarkada bat egin nahi duzue? Binaka besarkatu gaitezke? Besarkaden erronda bat? (bi gupil egin eta batzuk alde batera mugituz eta besteak beste aldera, taldeko lagun guztiak besarkatu daitezke). (hau alfonbran edo psikomotrizitate gelan egin daiteke. Psikomotrizitate gelan egiten badugu, mugituagoa izan daiteke dinamika. Musikaren dantzan egin dezaten eskatu eta musika geratzean binaka besarkatuko dira. Bakoitzean batekin guztiak besarkatu arte. Ez badira pareak, orduan beti talde bat hirukoa izatea proposatuko dugu, aniztasuna berriro positiboki jarri, edo 3ko taldeak egin ditzakegu.

Alfonbrako dinamika amaitzeko, guztien artean izen bat aukeratzeko eskatuko diegu. Hemen arrosa delako nesken izenak soilik agertzen bazaizkigu, irakasleak aukera du kolore guztiak guztiok erabili ditzakegula azaltzeko, eta gizon zein emakumeen argazkiak erakutsiko ditu arrosaz jantziak. (futboleko batzuk eta rugbykoak batu ditugu) **I. Eranskina**

Ondoren talde bakoitza txoko batera joatea proposatzen da eta txoko ezberdinetan lan ezberdinak egingo dituzte.

Matematika Txokoa: Sekuentziarioak. Ipuinaren momentu ezberdineko argazkiak emango zaizkie eta ordenatu beharko dituzte, Adinaren arabera, zenbakiak ere jar ditzakete dagokien lekuan.

Plastika txokoa: Ume bakoitzak munstro bat egin dezake. Arrosa edo beste kolore batekoa. Horretarako arrautzen orriak atxikitzen dira II. Eranskina, hauek moztu eta ondoren pinotxo paperezko bolekin bete ditzakete, Baita artilearekin. Bestela marraztuz ere nahikoa litzateke.

Eraikuntza txokoa: Munstro arrosa etxe zuri beltzean kabitzen ez denez, guk taldean etxe berri bat egingo diogu sartu dadin. Etxeaz gain, koloretako hiria ere irudikatu dezakegu.

Bukatzeke, guztien artean egindakoarekin, berriro alfonbran estraza paper bat erabiliz ikasitakoa kontatu diezaiokegu beste gelakide edota eskola-kide batzuei. Hiruhileko amaiera bada, gurasoak ere gonbidatu ditzakegu.

Beharrezko materiala

- Munstro arrosa liburua
- Kartulinak, Arrautzen forma hiru koloretan, txuri, beltz eta arrosa (atxikituta)
- Mozteko guraizeak edota puntzioak
- Pinotxo paperezko hainbat koloretako paperak edota koloretako artileak (txikientzat moztuta)
- Eraikuntza txokoa
- Estraza papera eta margoak jaiialdirik egiten bada, antzerki gisan ere egin daiteke gurasoek ere ikus dezaten ikasleek landutakoa.

Iraupena, gutxi gorabehera 50 minutuko saioa (gero beste saioak egiteko aukerarekin, txokoen antolaketa jarraituz)

Irakasleentzako orientabideak:


Ondorengo proposamena Haur Hezkuntzako txoko ezberdinetan lantzeko aukerarekin dator. Irakasle bakoitzak erabaki beharko du, saio bakar bat edo saio gehiagotan landuko duen proposamena eta ikasleek txoko bakar batetan edo txoko guztietan landuko duten. Jarduera antolatuta dagoen bezala, behintzat Alfonbrako txokoa (hizkuntza eta komunikazioa) egitea proposatzen da, eta hori egin ostean, aukeratu beharko du, zein beste txokotan edo guztietan lantzen duen.


Esperientzia arloa: Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua. Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

I. ERANSKINA




II. ERANSKINA





Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi

Haur
Hezkuntza



BERDINTASUNA EGUNEROKOTASUNEAN ERAIKITZEN DA

Jardueraren izena

Emozioen egunerokoa

Helburu zehatzak

- Emozioak deskribatzea eta ezagutaraztea

Konpetentziak

- Komunikatzen ikastea
- Ikasten eta pentsatzen ikastea

Hezkuntza-etapa

Haur Hezkuntzako bigarren zikloa

Garapena

Mimikara jolastuko dugu haiekin. Alfonbran jarrita daudela guk aukeratutako emoziotako bat esango diegu eta haiek guztiek, borobilean jarrita, emozio hori "antzezten" saiatuko dira. Horrela emozioen izenak eta hauek dituztenean zer nolako itxura hartzen duten konturatuko dira. Emozioak "ezagutzen" joateko. Ondoren, noiz sentitzen diren horrela esan dezaten eskatuko diegu. Eta egoera horretan daudenean zer egiten duten "baretzeko". Hala nola, zerk laguntzen dien eta norengana jotzen duten. Guztion ahotsetatik, zer behar duten azaltzen ikastea izango da helburua.

Alfonbrako tartea pasatu ondoren, emozioen edo sentimenduen kuadernoa egingo dugu. Horretarako koloretako 4 orri hartu eta erditik moztuko ditugu, ondoren grapatuko ditugu, koloretako kuadernotxo bat izateko. Lehelengo lau orrietan landutako emozioaren izena idatziko dute eta marrazki batekin adierazi emozio hori.

Ariketarekin bukatuta, egunerokoan emozioei tarte bat emateko aukera bezala, eguneroko rutinan sartu dezakegu kuaderno edo emozioen eguneroko hori betetzea. Horretarako, eguna amaitu baino lehenago 5 minutu lehenago, ikasleei galdetuko diegu ze emozio edo sentimendu duten eta dagokion orrian gometsa batekin edo hitz batekin markatzea eskatuko diegu. Gelan egiteko aukera ikusten ez badugu, etxean egiteko proposamena luzatu ahal diegu.

Beraien sentimenduak adierazi eta haietaz jabetzeko tresna gisa erabili dezakegu ariketa hau.

Materiala

- Emozioen definizioa
<http://bit.ly/2C2SyLr>
- Txominen Sentimenduak liburua
- Kartulina edo koloretako papera, arkatzak, koloretako gometxak

Iraupena

2 saioa



BERDINAK AL GARA, BENETAN?

Jardueraren izena	Berdinak
Helburu zehatzak	- Ez daudela nesken edo mutilen gauzak, - Generoek ez duela mugatzen egin dezakeguna
Konpetentziak	Komunikatzen ikastea
Hezkuntza-etapa	Haur Hezkuntzako bigarren zikloa
Garapena	



Igualak jolasa hartuko dugu (memory antzekoa) bertako marrazkiek rola gainditzera eramaten gaituzte.

Bi aukera porposatzen ditugu adinaren arabera.


Batetik, HH azken ikasturtean mahai jolasak erabiltzen hasten direnez, jolas dezakete memoryra normal. Fitxa guztiei buelta emanda, ume bakoitzak biri emango die buelta. Biak berdinak badira berarentzat izango dira eta ezberdinak badira, berriro buelta emango die eta hurrengo haurrari tokatuko zaio. Bikotea egiten duenean, fitxan dagoena azaldu beharko du, nor dagoen eta zer egiten dagoen. Irudiek lagunduko digute, rolen estereotipoak apurtzera.

Txokoka lan egiten baduzue, mahai jolasen txokoan ez ezik, gero alfonbrako tartean ere honi buruz hitz egitea proposatzen dugu. Haiekin beraien etxean fitxan ikusi dituzten egoerak nork egiten duen galdetuko diegu, zergatik, ea beraiek ere etxeko lanetan parte hartzen duten... Honek txikitatik beste eredu batzuk izan dezaten laguntzeko.

Bigarren aukera, irakasleak fitxa bat deskribatzea eta ondoren haurrek fitxa hori aurkitzea da. Horrela adibidez, irakasleak esango du, ikusten dudun argazkiak badago norbait arropa tolesten ari dena... Irakasleak fitxa hori bilatu beharko dute. Marrazki hauen bitartez, estereotipoak apurtu ditzakete, izan ere, askotan adin horretarako markatuta dituzte, gauza batzuk gizonezkoek egiten dituztela eta beste batzuk emakumezkoek. Joko honetako marrazkien bitartez, hori deusezten saiatzen gara eta beste eredu batzuk ematen. Ariketarekin amaitzeko, landu dugun fitxa bat aukeratu eta bere familiako norbait egoera horretan margotzea proposatuko diegu, ondoren gelan erakusketa egiteko.

Materiala Igualak jolasa-Ekilikua (gure Baliabide zentruan eskuragarri, Familien Kitean ere egongo da)

Iraupena Bi saio



HISTORIAKO EZKUTUKO PROTAGONISTAK

Jardueraren izena

Amona mantalgorri, atzo ze berri?

Helburu zehatzak

- Aintzina jendea nola bizi zen jakitea
- Arbasoek kontatzeko asko dutela ohartu
- Historia, gertakizun handiez gain, egunerokoak eta emakume arruntek ere sortzen dutela aitortu eta bistaratu

Konpetentziak

- Komunikatzen ikastea

Hezkuntza-etapa

Haur Hezkuntzako bigarren zikloa

Garapena

Ikasleei azalduko diegu, beti mundua eta gizartea ez direla gaur egun ezagutzen ditugun bezalakoak izan. Ea beraiek aitona amonak dituzten galdetuko diegu eta bere haurtzaroa nolako den imajinatzen eskatuko diegu. Zer galdetuko liokete bere amonari bere haurtzaroari buruz? Eta besteen amonei?

Galdera horiek jasoko ditugu (oharren atalean dituzue galdera batzuk lagungarri badira, amonak saioa prestatzeko, edota galderak zuzendu ahal izateko)

Ondoren gonbidatu dugun amonari sartzeko eskatuko diogu. Amamari ez etortzekotan aititeren bati eskatuko diogu. Eta galderak egingo dizkiogu.

Bere kontakizuna amaitzean, eskertu eta amonari agur esango diogu. Saiarekin bukatzeko, ikasleei galdetuko diegu ea zerk harritu dien, zer gustatu zaien kontakizunetik eta hitz egindakoa etxean kontatzeko eskatuko diegu.

Materiala

Folio eta boligrafoa

Iraupena

Bi orduko saio bakarra edo bi ordubeteko saio

Irakasleentzako orientabideak:

Jatorri ezberdinetako eta kultura aniztasuna lantzeko momento polita izan daiteke. Kontutan izan, jatorri eta kultura ezberdinetako ikasleak izango direla gure gelan, beraz, proposatu daiteke, ekintza hau urteko bizpahiru momentutan egitea eta guztien errepresentazio bat lortzea, amona ezberdinak gonbidatuta.

Hemen dituzue galdera batzuk, etorriko den amonari edo aititeri aurretik saioa prestatzeko baliagarri izan daitezkelakoan.

Gonbidatua aitite bat izatekotan oso garrantzitsua da bere esperientzia kontatzerakoan bere kide emakumeekin bizitako desberdintasunak nabarmentzea.

Nolakoa zen bere egunerokoa? Goizean jaiki eta gauean oheratu bitartean zer egiten zuen?

Zertara jolasten zuen?

Nolakoa zen bere etxea?

Eskolara joaten ote zen? Zergatik? Mutikorik ote zegoen bere gelan?

Etxean lanean aritzen zen? Zer egiten zuen?

Anai arreba zaintzen zituen? Nork egin ohi zuen lan hori?



ANIZTASUNEAN, BERDINAK

Jardueraren izena

Zaintzen zaintzen

Helburu zehatzak

- Zaintzek duten garrantziaz ohartzea
- Pertsonen eta bizidunen zaintzan paper garrantzitsua izan dezaten sustatu eta paper garrantzitsua duten emakumeak ezagutu

Konpetentziak

- Hizkuntza-Komunikaziorako gaitasuna
- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- Kultura humanistiko eta arterako gaitasuna

Hezkuntza-etapa

Lehen Hezkuntzako lehengo zikloa

Ikasgaiak

Inguruaren ezaguera

Garapena

Ariketarekin hasteko, euskal mitologiako munduaren sorreraren mitoa irakurriko diegu (edota Youtubeko bideoa ikusi). Historia entzun ostean, galdetuko diegu ea nola sentitu diren, noiz sentitzen diren babestua edo nork zaintzen dituen. Galderekin jarraituz, ea haiek norbait edo zerbait zaintzen duten galdetuko diegu.

Honen ondoren, naturaren urraketaz hitz egin diezaiegu, ziur entzun dutela ura gorde behar dela, ziur lehen hezkuntzan hazia erein zutela yogur potoan... Nola sentitzen dira beste batzuk eta natura zaintzean?

Bigarrenengo saioan, naturaren defentsan oso ezagunak diren 6 emakumerekin lan egitea proposatzen dizuegu. I. eranskinean daude, proposatutako ekintzak, pertsonaia babestu zuenarekin edo babesten duenarekin lotu behar da. Bigarrenik, emakume horiek dagozkien kontinentean kokatu beharko dituzte, horretarako Peters mapa mutua erabiliko dugu. Honela, kontinenteak erreparatu ditzakete, idazketa eta irakurketa prozesuan aurrera egin dezaten.

Amaitzeko, pirritx, porrotx eta marimototsen amalur abestia jar dezakegu

Materiala

- Peters mapa
- Emakumeen biografiak (behean estekak)
- Amalur abestia <http://bit.ly/2EoyBSg>
- Munduraen sorrera YOUTUBEN bideoa <http://bit.ly/2C4jQBo>

Irakasleentzako orientabideak:

Dian Fossey	http://bit.ly/2nUt1iz
Rigoberta Menchú	http://bit.ly/2EdpEKu
Berta Cáceres	http://bit.ly/2nsaqdA
Vandana Shiva	http://bit.ly/2gOwSvs
Wangari Maathai	http://bit.ly/2FWWVKn
Maxima Acuña	http://bit.ly/1T28miZ

I. ERANSKINA


Lotu itzazu emakume hauen izena, defendatzen duten naturako elementuarekin:

RIGOBERTA MENCHÚ	LURRA
DIAN FOSSEY	HAZIAK
BERTA CÁCERES	GORILAK
VANDANA SHIVA	URA
WANGARI MAATHAI	ZUHAITZAK
MÁXIMA ACUÑA	ERREKAK



Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi


Kokatu emakume hauek eta beren lana naturaren defentsan bere herrialdean:



**RIGOBERTA
MENCHÚ**
LURRA



**VANDANA
SHIVA**
HAZIAK



**DIAN
FOSSEY**
GORILAK



**WANGARI
MAATHAI**
ZUHAITZAK



**BERTA
CÁCERES**
URA



**MAXIMA
ACUÑA**
ERREKAK

BERDINTASUNA EGUNEROKOAN ERAIKITZEN DA

Jardueraren izena

Zaharrak berri

Helburu zehatzak

- Futboletik haratago kirol ezberdinak egon daitezkeela azaldu.
- Patio edo parkeetan futbolak duen presentzia gutxitu eta neskeei ere, espazioaren erdigunean egoteko aukera bermatu
- Jokuen, ahozkotasanaren eta garai batean neskek jolasten zituzten jokoak berreskuratu
- Aditu gisa, etxeko emakumeak hartzea
- Abesti berriak sortzea

Konpetentziak

- Hizkuntzara- komunikaziorako gaitasuna
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Hezkuntza-etapa

Lehen Hezkuntzako lehengo zikloa

Ikasgaiak

Soinketa, psikomotrizitatea, musika, jolastordua

Garapena

Ariketa eta hausnarketa hasteko, egun “normal” bat bailitzan hasiko gara. Jolastorduan bada, jolastordua egiten dugun bezala. Psikomotrizitate edo soinketa bada, jolas librea proposatuko diegu. Umeak jolasten dauden momentuan (2-3 minutu pasata) IZOZTUTA esan eta bakoitzari dagoen lekuan geratzeko eskatuko diegu. Irakaslearen laguntzaz, bakoitza non zegoen gogoratuko dugu eta bistaratuko dugu, nor zegoen erdian, nor eskinetan eta zer egiten zeuden. Horren ondoren, esango diegu, espazioaren erabilera desberdin bat egingo dugula, guztiok espazioa era berean erabili ahal izateko. Horretarako soka bat (edo goma) aterako dugu, eta erdian hasiko gara honekin jolasten. Ahal bada beraiek dakizkiten abestiekin.

Bukatzeko, hausnartuko dugu, nola sentitu dira espazioa era ezberdin batetan okupatzen? Normalean “onak” diren pertsonak izan al dira ere habilenak? Abestirik bazekiten? Araurik? Norbaitek lehenago bazekien salto egiten? Nork erakutsi zien abestia?

Saioa bukatzeko, esango diegu hurrengo egunerako abesti ezberdinak ekar ditzaten, etxean galdetzeko abesti ezberdinak, hurrengo saioan jolasteko.

Bigarren saioa gelan izango da. Musika jakintza arloan. Sokasaltorako ze abesti esan dizkieten galdetuko diegu. Nork kantatu dizkien? Noiz jolasten zuten pertsona horiek sokasaltoan...

Litekeena da Aita-Ama abestia agertzea. Bertan familia eredu bakar bat agertzen da, aita eta ama batez osatua, eta badakigu, familia guztiak ez dutela horrelakoak izan behar. Orduan, beraiek ezagutzen duten beste familia eredu batzuk izendatzeko esango diegu. Bi amaz, bi aitaz, ama bakarraz, aita bakarraz, etxe berean bizi ez diren bikoteetaz, harrera familietaz, etab hitz egiteko aukera emango diegu. Bigarren partean zenbat urterekin ezkonduko diren galdetzen du. Berriro ere, gaur egun familiak eratze modu ezberdinak daudela jarri dezakegu mahai gainean eta ez dela guztiok bete beharreko zerbait.

Bukatzeko, beraiekin, abesti berri bat sortzea proposatzen dugu. Aniztasuna kontutan hartuko duena, eta guztiok egin nahi duten zerbait galdetuta. Agian zenbat falta den oporretarako, agian astegunak ikasi nahi dituztela eta laguntza eske...

Proposamena amaitzeko, kantu berri hori buruz ikasi eta hurrengo soinketa, psikomotrizitate edota patio orduan horrekin jolastea izango litzateke.

Materiala

Soka

Iraupena

Bi saio saltoka eta beste saio bat abestiak lantzen

Irakasleentzako orientabideak:

Proposatutako ekintza jakintza esparru ezberdinetako “espezializtei” dagokie. Gure proposamena, elkarrekin lantzea litzateke, lan koordinatua eginez, ezin bada edo ez bada egoki ikusten, bakoitzak bere arloan landu dezake, eta soilik bere jakintza arloari dagokion atala landu.

BERDINAK AL GARA, BENETAN?**Jardueraren izena****Gorputzak marraztuz****Helburu zehatzak**

- Mutil eta neska gorputz desberdinak daudela ikustea
- Ez dela zertan eredu berdin bat jarraitu behar gorputzei dagokionez

Konpetentziak

- Kulturarako humanistiko eta artistikorako gaitasuna
- Hizkuntzara- komunikaziorako gaitasuna
- Gizarte eta hiritartasunerako gaitasuna

Hezkuntza-etapa**Lehen Hezkuntzako lehengo zikloa****Ikasgaiak****Plastika txokoa****Garapena**

Ariketarekin hasteko borobil batean kokatuko gara. Bertan neskak eta mutilak nahastuta egongo dira edo egoten saiatuko gara. Ondoren lau partaideko taldeak egingo dira. (Dagoeneko taldeak eginak badituzte, pausu hau ez da egin behar)

Partaide bakoitzari, orri handi bat emango diogu. Helburuak era kolaboratiboan pertsona bat maraztea izango da, talde bakoitzak 4 pertsona marraztuko dituelarik. Lehenengo, burua marraztuko dute. Ondoren enborra. Hirugarrenik beso eta eskuak eta azkenik zango eta oinak. Atal bakoitza margotzeko 2/3 minutu emango dizkiogu. Lehen 3 minutuak pasata, orria buruaren azpitik tolesteko eskatuko diegu, eta beraien eskuman dagoen pertsonari pasatzeko. Berrir 2-3 minutu margotzeko, eta berrir pasatu. Helburua, aurretik margotu duen pertsonak, zer margotu duen ez ikustea litzateke. Horrela nahi duten enbor, zango edo besoak margotu ditzaten, aurrekoak egindakoaren muga barik.

Bukatzerakoan paper guztiak irekiko dira eta pertsona ezberdinen irudiak agertuko zaizkie.

Talde bakoitzean bi galdera erantzun behar izango dituzte. Lehenengoa, ea zein den gehien gustatu zaiena eta zergatik eta bigarrena, ea zer iruditzen zaien, emakumea ala gizonezkoak diren egindako marrazkiak eta zergatik.

Erantzuteko talde bakoitzeko bozeramaile bat aukeratuko dute. Hau burutzeko, 10 minutuko tarte utziko zaie.

Materiala**Margoak, orriak, kartulinak****Iraupena****50 minutuko saio bat****Irakasleentzako orientabideak:**

Interesgarria da, bukaeran agertu diren gorputz motak aztertzea, ea behintzat, gelan dagoen aniztasun adina marrazki mota agertzen zaizkigun. Neska-mutil banaketaz gain, "azal kolorea" lantzeko aukera ematen digun (ubuntuland proiektuaren bitartez adibidez), lodi-argal inguruan ere. Pertsona adina, gorputz daudela jakitea da helburua gorputzen normatibitate alde eginez.



HISTORIAKO EZKUTUKO PROTAGONISTAK

Jardueraren izena

Herriko emakume famatuen paseoa

Helburu zehatzak

- Umeek beraien gertuko inguruan erreferente diren emakumeak ezagutu ditzaten.

Konpetentziak

- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Hezkuntza-etapa

Lehen hezkuntzako lehengo zikloa

Ikasgaiak

Inguruaren ezaguera, plastika

Garapena

Ekintza honetarako proposatzen dugun jarduera biografia txiki bat egitean datza. Guk Malalaren bizitza kontatuko diegu, beraien adinari egokitua. Ondoren gure inguruan hezkuntzarekin lotutako beste adibide bat jarriko diegu, esaterako Elbira Zipitriarena. Horren ondoren bi aukera daude.

Lehenik, hezkuntza eta berdintasunari buruzko biografia bat egitea. Beraien eskolan emakumeen eta gizonezkoen arteko presentziaren inguruan ikas dezaten.

Lagungarri gerta daitezkeen galderak:

Eskola honetan zeintzuk ikasten dugu? Beti egon gara neska eta mutilak? Noiztik da horrela hau? Eta irakasleak? Nortzuk izan ziren eskolako lehen irakasleak, zer izen zuten?

Taldeka aukeratu emakumezko irakasle bat eta bere biografia egin. Non jaio zen? Non ikasi zuen? Gelan neska eta mutilak zeuden? Zer egitea du gustoko? Zergatik da ezaguna bere esparruan (irakaslea bada, hezkuntzari zer ekarpen egin dio) Azkenik hilda badago, non hil zen.

Bigarren aukera, eskolari lotuta egon beharrean, etxean galdetu dezakete, herriko emakume ezagunen inguruan eta argazki bat ekarri edo interneten bilatu. Emakume hauek edozein esparrutakoak izan daitezke. Herriko politikariak, kirolariak, medikuak, artistak, arkitektoak, funtzionariak, irakasleak. Hauen inguruan ere, taldeka biografia bat egitea proposatzen dugu goiko galderei erantzunez.

Bi kasuetan, talde bakoitzak eginiko biografia eskolako paretetan jartzea proposatzen dugu. Eta ahal bada, gurasoei bisita gidatu bat egitea.

Materiala

- Malalaren biografia <http://bit.ly/2DR4dio>
- Elbira Zipriaren biografia <http://bit.ly/2rZIT9N>
- Kartulinak
- Margoak

Iraupena

50 minutuko 2 edo 3 saio



ANIZTASUNEAN, BERDINAK

Jardueraren izena

Goazen kirola egitera

Helburu zehatzak

- Emakumeei kirolean ikusgarritasuna ematea.

Konpetentziak

- Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna
- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna

Hezkuntza-etapa

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa

Ikasgaiak

Gorputz Hezkuntza

Garapena

Futbola, munduko kirol ezagunenetakoa delarik, hartuko dugu adibidetzat eta Peters mapa erabiliko dugu. Ikasleek kolore bateko post-it txikiekin adieraz ditzakete munduan ezagunenak diren futbol-taldeak, munduko futbol-txapelketa irabazi duten herrialdeak, jokalaria ezagunen jatorrizko herrialdeak, etab.

Ondoren emakumezko futbolariak ezagutzen duten galdetuko diegu, eta hala bada mapan adieraziko ditugu, baina besteko kolore bateko post-itak erabiliz. Ziurrenez ez dira gizonezko futbolariak bezainbeste izango, eta beraz, horri buruz hausnartuko dugu. Ondoren, emakumezko futbolarien jokaldi onenen bideo bat edo bi ikus ditzakegu.

Hau da erabil daitekeen bideo bat: <http://bit.ly/2Fvc06E>

Bideoan jokalaria hauek aipatzen dira:

Nadine Angerer, Alemania, atezaina

Lotta Schelin, Suedia, aurrelaria

Homare Sawa, Japonia, erdilaria

Sydney Leroux, Kanada, aurrelaria

Abby Wambach, Estatu Batuak, aurrelaria

Hope Solo, Estatu Batuak, atezaina

Dzsener marozsan, Hungaria, erdilaria

Carli Lloyd, Estatu Batuak, erdilaria

Alex Morgan, Estatu Batuak, aurrelaria

Marta Vieira, Brasil, aurrelaria

Bideo horretan Afrikako emakumerik agertzen ez bada ere, jatorri afrikarreko Nicole Banecki eta Jade Boho ere aipagarriak dira. Behin futbolari horiek edo beste batzuk ezagututa, gorputz-hezkuntzan futbolerako taldeak egiteko erabiltzen diren petoak aldatzea edo jokalaria horien izenekin berriak egitea proposatuko da ikasgelan.

Horretarako, haien izen-abizenekin kartelak egin daitezke, baita paperean jokalarien argazkiak inprimatu eta itsatsi ere; eta aukera izanez gero, oihalerako pinturarekin petoetan idatz daiteke edo peto berriak sortu, maila desberdinetako ikasleek erabili ahal izateko.

Beharrezko materiala

- Bideoa
- Petoak
- Margoak
- Internet
- Papera
- Oihalerako pintura (aukeran)

Iraupena, gutxi gorabehera

50 minutuko saio 1 edo 2

Irakasleentzako orientabideak:

Jarduera hau gorputz-hezkuntzan une horretan lantzen ari diren edozein kirolekin egin daiteke, hala nola saskibaloia, tenisa, gimnastika erritmikoa...

Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi

BERDINTASUNA EGUNEROKOTASUNEAN ERAIKITZEN DA

Jardueraren izena	Ospitalea
Helburu zehatzak	• Mina eragiten diguten gauzei buruz hausnartzea • Genero-indarkeria nabarmentzea
Konpetentziak	• Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna • Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
Hezkuntza-etapa	Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa
Ikasgaiak	Tutoretza
Garapena	

Hasteko, minari buruz hitz egingo dugu ikasleekin. Horretarako, minarekin zer ulertzen duten galdetuko diegu, eta zer egoerek ematen dieten min. Oso garrantzitsua da azaltzea minak ez duela zertan soilik fisikoa izan. Eztabaida bat izan daiteke adibidea. Eztabaida berotzen bada, baliteke norbaitek beste bat iraintzea. Irain horrek mina eragin dezake; ez da min fisikoa, baina min “sentimentala” da.

Sexuaren arabera diskriminazioan edo genero-indarkerian gehiago sakontzeko... adibide batzuk jarriko ditugu (adibide hauek gidari gisa balio dezakete):

- Telebistan emakume bat jo dutela ikusten dudanean, niri min ematen dit
- Eguberri iristen denean eta jostailuen katalogoa ikusterakoan, mutilak jokatu ezin duten gauza batzuk eta neskak jokatu ezin duten beste gauza batzuk daudela dirudi, min ematen dit
- Abentura-filman protagonista ausarta beti mutil bat dela ikusten dudanean, bidegabea iruditzen zait eta min ematen dit

Azalpenarekin jarraituz, esango diegu min handia dugunean laguntza eskatu behar dugula, dela hurbileko norbaiti, dela medikuari, dela ospitalera joanda.

Ikasgelan ospitale/botika-kutxa sinboliko bat egitea proposatzen dugu. Horretarako, kaxa bat hartu eta ospitale/botika-kaxa itxura eman-go diogu eta gelako leku ikusgai batean jarriko dugu (kaxa ikasleek apaindu dezakete, edo bestela irakasleek jada apainduta ekarri).

Minutu batzuk emango dizkiegu ikasleei, ikastetxean min fisiko zein psikologikoa noiz sentitu duten pentsatzeko eta paper batean idatzi-takoan ospitalean/botika-kutxan sartzeko. Ikasleek gatazkaren baten eraginez mina sentitzen duen bakoitzean, paperean idatzi eta kaxan sartuko dute.

Denbora apur bat pasatutakoan, kaxa zabalduko dugu eta ikasleek idatzitakoak irakurriko ditugu. Hala, gertatutakoari buruzko eztabaida sortuko dugu gelan, nola ekidin zitekeen, zer egin daitekeen berriro ez gertatzeko...

Arreta berezia eskainiko diegu indarkeria matxistarekin loturiko testuei: mina sentitu dutenak jardueraren batean baztertuak izan direlako neska izateagatik edota mutila izanda arropa arrosa janzteagatik, “nesken moduan egiten duzu negar” edo “ezin zara futbolearen aritu neska zarelako” modukoan esan dizkietelako...

Esaldi horiek guztiak ikusgai jarriko dira, gelan aipatutako irtenbideekin batera. Adibidez, puntu more handi baten gainean jar daitezke.

Beharrezko materiala	• Kaxa • Kaxa apaintzeko elementuak • Papera eta boligrafoa
----------------------	---

Iraupena, gutxi gorabehera Ikasturtean zehar

Irakasleentzako orientabideak:

Gomendagarria da noizean behin ikasleei kaxaren funtzioa gogoraraztea, edo aldian behin horretan jarduteko tarte bat hartzea.



BERDINAK AL GARA, BENETAN?

Jardueraren izena	Lan-arloko desberdintasunak
Helburu zehatzak	• Gizonen eta emakumeen estereotipoei buruz hausnartzea • Lanean gizon eta emakumeen estereotiporik dagoen hausnartzea
Konpetentziak	• Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna • Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
Hezkuntza-etapa	Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa
Ikasgaiak	Gizarte Zientziak
Garapena	

Ikasleei azalduko diegu etorkizunaz eta lanaz hitz egingo dugula.

Ikasleek paper bat izango dute, egiten zaizkien galderei erantzuteko, eta mutilak, neskak ala bestelakoak diren adierazteko.

Lehen galderan helduak direnean zer izan nahi duten edo zertan lan egin nahi duten galdetuko dugu. Idazten dutenean, lan horretan zergatik aritu nahi duten azaltzeko hiru arrazoi idazteko eskatuko diegu.

Ondorengo galdera hau izango da:

Neskentzat, mutila bazina handitan zertan lan egitea gustatuko litzaizuke?

Mutilentzat, neska bazina handitan zertan lan egitea gustatuko litzaizuke?

Galdera horri erantzundakoan, lanbide hori zergatik aukeratuko luketen azaltzeko hiru arrazoi idatzi beharko dituzte.

Galderak erantzundakoan, dinamizatzailak lehen bi galderen erantzunak (zer izan nahi duzu handitan eta horren arrazoiak) irakurtzeko eskatuko die lehenik neskei eta ondoren mutilei, edo alderantziz. Erantzunak arbelean idatziko dira.

Ondoren, mutilek edo neskek erantzungo dute eta horien erantzunak ere arbelean idatziko dira, neska eta mutilen erantzunak zein diren argi ikusteko moduan. Azaletik hitz egingo dugu multzo bakoitzaren erantzunei buruz, hausnarketa amaieran egingo baita.

Lehen bi galderen hurrenkera bera jarraituz, ikasleek azken bi galderei eman dizkieten erantzunak ere arbelean idatziko dira (mutilen kasuan, neskak izanez gero zer lanbide aukeratuko luketen eta zergatik, eta alderantziz).

Hori egindakoan, taldean eztabaidatuko da. Honako hauek dira egin daitezkeen galderen adibide batzuk:

- Zer desberdintasun dago mutilek aukeratutako lanen eta neskek aukeratutakoen artean?
- Zergatik uste duzue ematen direla desberdintasun horiek?
- Neskei galdetuko diegu ea mutilek aukeratutako lanak egiteko gai diren (mutilen erantzunetan soilik agertu diren lanbideak), eta gustatzen bazaizkie ea zergatik ez dituzten aukeratu...
- Mutilei galdetuko diegu ea neskek aukeratutako lanak egiteko gai diren (nesken erantzunetan soilik agertu diren lanbideak), eta gustatzen bazaizkie ea zergatik ez dituzten aukeratu...

Beharrezko materiala

- Papera
- Arbela

Duración aproximada 50 minutuko 1 saio

Irakasleentzako orientabideak:

Enplegu berrikuntzaren behatokiak inkesta bat egin zien 1.200 neska-mutiko baino gehiagori handitan zer izan nahi duten galdetuz, eta mutilek eta neskek emandako erantzunen artean desberdintasunak daude. <http://bit.ly/2rQ7NH0>

HISTORIAREN EZKUTUKO PROTAGONISTAK

Jardueraren izena

Nire familiako edo inguru hurbileko emakumeak

Helburu zehatzak

- Emakumeek historian izan duten eginkizunaz hausnartzea
- Emakumeen ikusgaitasunaz hausnartzea

Konpetentziak

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Kultura humanistiko eta artistiko gaitasuna

Hezkuntza-etapa

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa

Asignaturas

Gizarte Zientziak, Plastika

Garapena

Saio honen garapenerako, ikasleei beren familiako edo inguru hurbileko emakumeei buruz aztertze eskatuko diegu. Horretarako, garrantzitsutzat jotzen duten familiako emakume bat, arbaso bat, inguru hurbileko emakume bat... aukeratu beharko dute. Gomendagarria da ikasleei esatea ez dutela zertan emakume ospetsuak izan, edo lorpen handiak egin dituztenak bizitzan. Nahikoa da beraientzat garrantzitsua den norbait izatea, duten edo izan duten lanagatik, astialdian egiten edo egin dutenagatik, babestu dituzten pertsonengatik, duten izateko moduagatik...

Ikasle bakoitzak aukeratutako emakumea beretzat garrantzitsua izatea da axola duena.

Horretarako, ikasleei esango diegu senideei edo inguruko jendeari laguntza eskatzeko, akaso ikasleek beraiek aurrez aurre ezagutu ez dituzten emakumeei buruzko historiak kontatzeko aukera izango dutelako.

Saioaren bigarren zatian plastikako irakasleekin batera lan egin dezakegu, eta une akademiko horretan egiten ari direnaren arabera, ikasleei aukeratu duten emakumezko pertsonaiaren erretratu bat, komiki bat, ordenagailu bidezko marrazki bat... egiteko eskatu diegu. Zer itxura zuten ez badakite, asmatu egingo dute. Garrantzitsua da marrazkiarekin batera pertsonaia hori —eta ez beste bat— aukeratu izanaren zergatia idaztea, eta egin zuen gauzarik aipagarriena zein izan zen ere bai.

Behin lana amaituta, emakumeei buruz egindako lan guztien erakusketa bat osatu daiteke.

Beharrezko materiala

- Papera, margoak...

Iraupena, gutxi gorabehera

50 minutuko 2 saio

Irakasleentzako orientabideak:

Jarduera hau bera egiteko, ikasgelan erabilitako liburu edo materialetan agertzen diren emakumeak ere har daitezke erreferentziatzat familiako emakumeen orde. Modu horretan, ikasleek gelan jasotzen duten informazioan emakumeek duten ikusgaitasun txikiari indarra emango zaio.



ANIZTASUNEAN, BERDINAK

Jardueraren izena	Nik ahal dut
Helburu zehatzak	• Gizarteak jartzen dizkigun mugez hausnartzea • Eskubideak defendatzearen garrantzia balioestea
Konpetentziak	• Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
Hezkuntza-etapa	Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa
Asignaturas	Gizarte-zientziak
Garapena	

Saio honetan, mutilak edo neskak izateagatik jartzen diren mugez hausnartuko dugu.

Hasteko, ikasleei galdetuko diegu ea noizbait esan dieten zerbait ezin dutela egin, mutilak edo neskak direlako. Mutilak edo neskak izateagatik gauza batzuk benetan ezin duten egin ere galdetuko diegu.

Aipamen edo sinesmen horiek egiazkoak diren ala ez eztabaidatuko dugu ikasgelan. Irakasleen aldetik oso garrantzitsua da esatea guztiok dugula nahi duguna egiteko eskubidea, bazterketarik gabe, eta eskubide horiek aldarrikatzeak helburua lortzen laguntzen duela.

Elkarrizketarekin jarraituz, hainbat marrazki jarriko ditugu ikasleen eskuera (margotzeko izan daitezke, edo ez). Marrazkietan jatorri, adin, janzkera... ezberdinetako gizon-emakumeak agertuko dira. Kirola egiten ari diren neska-mutilak izan daitezke, herrialde desberdinetako neska-mutilak ikasten...

Ikasleei irudiak erakutsitakoan, galdetuko diegu ea irudietan agertzen diren pertsonen ikasgelan hitz egindakoa gertatzen zaien. (Adibidez, adineko emakume bat agertzen bada, galdetuko diegu ea badagoen egitea debekatzen dioten zerbait edo adineko andrea delako ez egiteko esaten diotena; neskato asiar baten irudia ikusitakoan berdin...)

Irudi bakoitzak bere izenburua izango du.

EMAKUMEA NAIZ ETA DEZAKET
GIZONA NAIZ ETA DEZAKET
EMAKUMEA NAIZ ETA NAHI DUT
GIZONA NAIZ ETA NAHI DUT

Dugun denboraren arabera, ikasle bakoitzak irudi bat edo gehiago hautatuko ditu eta esaldia osatuko du.

Irudiak ikasgelan edo ikastetxeko korridoreetan jar daitezke, gainerako ikasleek ikus ditzaten.

Beharrezko materiala

- Irudiak
- Zeloak
- Margoak (aukeran)

Iraupena,
gutxi gorabehera

55 minutuko saio 1 edo 2



Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi

BERDINTASUNA EGUNEROKOTASUNEAN ERAIKITZEN DA

Jardueraren izena	Marrazki bizidunak ikusten
Helburu zehatzak	Marrazki bizidunetako estereotipoen hausnartzea
Konpetentziak	- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia - Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak
Hezkuntza-etapa	Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa
Asignaturas	Gizarte-zientziak, gaztelania eta euskara
Garapena	

Hasteko, ikasleei galdetuko diegu zer marrazki bizidun dituzten gustuko, eta gehien aipatu diren hirurak arbelean idatziko ditugu. Jarraian, gustuko dituzten telesailen buruz galdetuko diegu, eta gehien errepikatu diren hirurak arbelean idatziko ditugu. Azkenik, youtuberrei buruz ere gauza bera galdetuko diegu eta hiru ospetsuenak idatziko ditugu.

Ondoren, ikasleak 4-5 lagunekoa taldeetan banatuko dira gutxi gorabehera, edo ikasgelan bildu ohi diren bezala. Talde bakoitzari osatu beharreko fitxa bat banatuko diogu (I. ERANSKINA). Lehen taldeak aipatutako marrazki bizidunetako bat aukeratu du, bigarrenak telesail bat, eta hirugarrenak youtuber bat. Dagoen talde-kopuruaren arabera, sekuentzia hori errepikatu egingo da, betiere kontuan izanda hautu desberdinak egiten dituztela.

Jarduera egindakoan, partekatu egingo dute. Internet eskura izanez gero, aipatu diren marrazki bizidunen/telesailen... eszena batzuk ikus daitezke.

Besteekin partekatze orduan eztabaidatu egingo da, gai hauek landuz, besteak beste:

- Zergatik gustatzen zaizkizue marrazki bizidun horiek?
- Zenbatetan da protagonista femeninoa? Eta maskulinoa?
- Guztira zenbat pertsonaia maskulino eta zenbat femenino daude? Zergatik uste duzu dela hori?
- Pertsonaia bakoitzari zer ezaugarri jarri dizkiote sexuaren arabera?
- Uste duzue ezaugarri horiek bizitza errealekoak bezalakoak direla?

Beharrezko materiala

- Papera
- Arbela

Iraupena, gutxi gorabehera 50 minutuko 1 saio



1. ERANSKINA

**Telesailaren/
marrazki
bizidunen/
youtuberraren
izena**

Telesailaren/
marrazki bizidunen/
youtuberraren gaia

Pertsonaien izenak garrantziaren arabera ordenatuta

Adierazi
x batekin
pertsonaia
maskulinoak

Adierazi
x batekin
pertsonaia
femeni-
noak

Pertsonaien ezaugarri garrantzitsuenak

[illegible]

Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi

BERDINAK AL GARA, BENETAN?

Jardueraren izena	Abestien esanahia
Helburu zehatzak	• Abestien letren esanahiaz hausnartzea • Abestien letrek dituzten mezu matxisten garrantziaren kontzientzia hartzea.
Konpetentziak	• Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia • Kultura-kontzientzia eta adierazpena
Hezkuntza-etapa	Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa
Asignaturas	Gaztelania, ingelesa, euskara, musika
Garapena	

Jarduerari ekin baino egun batzuk lehenago, ikasleei gustuko duten abesti bat aukeratzeko eskatuko diegu, 5 edo 6 laguneko taldetan (egin nahi den talde-kopuruaren arabera). Jarduera egingo duten egunean abestia eta abestiaren letra eraman beharko dituzte ikasgelara. Ahalik eta aniztasun handiena egoteko, irakasleek jarraibideak emango dizkiete taldeei.

Talde bakoitzak hauetako bat eraman beharko du: gaztelaniazko abesti bat, euskarazko abesti bat, ingelesezko abesti bat, herri-kanta bat, antzinako abesti bat, gaur egungo abesti bat... (Sortzen den talde-kopuruaren arabera, irakasleak egoki iritzitako jarraibideak emango dizkio talde bakoitzari).

Jardueraren egunean

Taldez talde, abestiaren letra proiektatuko da gelan eta audioa entzungo dute.

Abesti bakoitzean hainbat alderdi aztertuko dira (jarraian proposatutako galderak gidatzeko besterik ez dira):

- Garaia, hizkuntza, abestiaren data eta jatorria, estiloa...
- Zer esan nahi du letrak?
- Neska batek ala mutil batek abesten du? Eta nori eskainita dago, mutil bati ala neska bati?
- Abestiak errespetuzkoak al dira?
- Zein da gai nagusia?
- Letraren zer zati aldatuko zenukete?
- Letraren zer alderdi gustatzen zaizue eta zein ez?
- Matxismoa musika-estilo batean bakarrik agertzen al da?
- Zer adibide datorkizue burura?

...

Amaitzeko, Maialen Lujanbio bertsolari gipuzkoarrari buruz hitz egingo dugu, Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi duen lehen emakumeaz, hain zuzen 2017an berriro irabazi zuen txapelketa horretako txapela, zortzi finalisten artean emakume bakarra zelarik.

"Beti-bezperako koplen" letra proiektatuko dugu ikasgelan, Maialen Lujanbiok Santa Ageda bezpera oinarri hartuta genero-indarkeriaren aurkako salaketa egiteko sortutakoa. Letra aztertzeo, gogoan izango dugu Santa Agedari (gobernadoreari ezezkua eman ostean torturatu eta bularrak moztu zizkieten martiria) abesteko tradizioa dela abiapuntua.

Beste egun batean edo beste ikasgai batean jarduerarekin jarraitzeko denbora izanez gero, ikasleei proposatu diezaiekegu genero-berdintasuna aldarrikatzeko kantu bat sortzeko edo egina dagoen bat moldatzeko. Horrenbeste denbora ez badago, genero-berdintasunaren aldeko letrak dituzten abestiak bilatzeko eska diezaiekegu.

Beharrezko materiala • Beti- besperako koplak <http://bit.ly/2EiYAue>

Iraupena, gutxi gorabehera 55 minutuko 1-2 saio

Irakasleentzako orientabideak:

Denbora gutxi izanez gero, hobe da abesti pare bat hartu eta horiek sakonki aztertzea.

HISTORIAREN EZKUTUKO PROTAGONISTAK

Jardueraren izena

Txokolatearen misterioa

Helburu zehatzak

- Familia-zaintzaren balioaz jabetzea.
- Zaintza horretaz arduratzen diren pertsonetikiko errespetua izan eta haiek balioestea.

Konpetentziak

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Kultura-kontzientzia eta adierazpena

Hezkuntza-etapa

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa

Asignaturas

Gaztelania

Garapena

Jarduera honetan Emakumearen Erakundearen unitate didaktikotik ateratako "Hozkailuko txokolatearen misterioa" ipuinarekin lan egingo dugu. <http://bit.ly/2DY1Ux6>

Ipuina irakurri aurretik, galdera batzuk egingo ditugu (hemen zerrendatutakoak adibideak besterik ez dira):

Nork kozinatzen du etxean?

Nork egiten ditu erosketak?

Zer janari duzue gustukoen? Egunero jango al zenukete?

Zer uste duzue dela elikadura orekatua? Garrantzitsua al da?

Kozinatzea erraza dela uste al duzue? Non edo nork irakatsi zion kozinatzen zuen etxean janaria prestatzen duen pertsonari?

Zuen familian ba al dago belaunaldiz belaunaldi igaro den errezetaren bat?

Jarraian, ipuina irakurriko dugu (I. eranskina).

Ipuina irakurritakoan denen artean hitz egingo da. Ondoren, ikasleek beren familientzako menu osasungarri bat diseinatzea proposatzen dugu, familiako kide guztien gustuak kontuan izanda. Menua osatzeko, ikastetxeko jantokiko menua eta elikagaien gupila har ditzakegu erreferentziatzat (II. eranskina).

Ikasleei galdetuko diegu nori eskatuko lioketen laguntza janaria prestatzeko eta menua egokia den ala ez jakiteko. Horren bidez, elikaduraren eta familia behar bezala elikatzeko izan beharreko ezagutzen balioa azpimarratu nahi dugu. Aspalditik, etxeko janariaren prestaketa emakumeen ardura izan da, eta horrek dakarren lan guztia nabarmendu nahi dugu.

Beharrezko materiala

Ipuina (I. ERANSKINA)

Iraupena, gutxi gorabehera

50 minutuko 1 edo 2 saio



Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi

I. ERANSKINA

I
Manu egunero bezala jaiki zen; hau da, mainaka eta kexaka, jantzi, orraztu, garbitu... egin behar zuelako. Egunero berdina. Zorionez, jantzen ari denean txokolatedun esne beroaren usaina, ogi txigortuarena, laranja-zukuarena... iritsi ohi zaio. Ederki, gosaria! Manuk oso gustura gosaltzen du; baina ez ditu batere gustuko azalorea, lekak, arraina, garbantzuak... Hala ere, ziakerbak atsegin ditu gutxien. Ezin ditu jasan, eta ez du ulertzen etxean zergatik prestatzen duten hainbeste plater hori. Nahiago luke egunero makarroiak edo arroza tomatearekin edo haragi-bolak edo kroketa edo zopa jango balituzte, eta batez ere, beti izango balituzte goxokiak, gailetak, tartak eta txokolate beltza, txokolate zuria, txokolate-krema, txokolate-barratxoak arbendolekin, txokolate-hautsa; txokolate pila! Gosaria amaitu bitartean, urdaila gero eta lasaiago zuela, amaren mugimenduei begira zegoen, sukaldearen alde batetik bestera. Ama prestatzen ari zenaz ohartu zenean, ezin izan zuen honakoa esatea ekidin: «Hau nazka! Berriro ziakerbak!»

Amari ez zitzaion batere gustatzen Manuk hori esatea. Beti azaltzen zion maitasun handiz prestatzen zuela janaria eta erabiltzen zituen elikagai guztiak onak zirela eta handia egiteko balio zutela. Zera esan daiteke: «hori ez zait asko gustatzen, atera plater txiki bat, mesedez»; baina «hau nazka!» esatea amaren sukaldari lana (eta asko da) gutxiestea bezala zen, bai eta Manuk hazteko behar duenari buruz dakien guztia (hori ere asko da) eta kozinatzean jarritako maitasun guztia (ikaragarri da) ere.

II
la gaua zen. Manuk bainua hartu berri zuen, ziztuan lehortu zen eta pijama jantzi zuen. Zakur-gosea zuen, eta ama sukaldean prestatzen ari zen kroketa usain goxoa korridorean barrena gelaraino iristen zitzaion, sudurra goxatuz. Amari entzun zion: «Manu, kotxeraino noa! Oraintxe nator. Afaria sukaldean duzu». Arrapaladan joan zen sukaldarantz eta amak prestatutako plateraren aurrean eseri zen. Hau ezustekoa! Ahaztuta zuen kroketa aurretik ziakerbak jan behar zituela. Manuk indarrak batu eta aurrean zuen ziakerba-plater txikitik jaten hasi zen. Bazekien amak ez ziola utziko kroketa bat bera ere jaten aurretik ziakerbarik jaten ez bazuen; ogi-puska on batekin eta basokada bat esnerekin lagundu beharko zuen, zaporea pixka bat mozorrotzeko. Mahaitik jaiki zen esne hotza hartzera, eta hozkailua ireki zuenean ezusteko galanta hartu zuen: Hutsik zegoen! Ez zegoen ez esnerik, ez jogurtik, ez frutarik, ez barazkirik, ez saltxitxarik, ez urdaiazpikorik, ez arrainik, ez zukurik, ez gaztarik, ez gurinik, ez marmeladarik, ez ezer. Gauza bakarra zegoen, erdi-erdian, koloretako paperez bilduta; bere txokolate gustukoenaren tableta bat zen. Ezin zuen egia izan! Begiak indarrez igurtzi zituen, ezin baitzuen sinestu. Nola zen posible txokolate-tableta bat bakarrik egotea hozkailuan?

Manu harrituta zegoen baina ez zuen ezer esan; hozkailua itxi zuen eta mahaira itzuli zen esne hotzik gabe. Oso arduratuta zegoen. Nola iritsi zen hara bere txokolate gustukoena, oso une berezietan bakarrik erosten dena? Eta gainerako elikagaiak non zeuden? Hozkailura itzuli zen eta kolpez ireki zuen atea. Berriro ere berdina! Hantxe zegoen, bakarrik, ezerezaren erdian, munduko txokolate guztien artean goxoena. Nahiko arduratuta zegoen. Hurrengo egunean zer gosalduko zuen eta zer askalduko zuen besterik ez zerabilen buruan. Eta bere familiak? Ziakerbak jan zituen txintik ere atera gabe. Kroketa gogo gabe irentsi zituen. Eta orduantxe, amaitzen ari zela, ama sartu zen sukaldara poltsa pila batekin.

III
Atzetik Manuren aita sartu zen, hura ere beste poltsa pila batekin. Erosketa egitetik zetorren, eta ama kotxea husten laguntzera jaitsia zen. Manuren ama harrituta zegoen:

-Dagoeneko amaitu duzu? ! Hau sorpresa! Oso ondo!

Manu ez zen ia entzuten ere ari:

Aita, ama, ez duzue sinetsiko, baina hozkailua hutsik dago; hutsik! Tira, ez guztiz: Horrenbeste gustatzen zaidan txokolatea dago.

-Hara, aurkitu duzu! -esan zion amak- Gaur ziakerbak genituen ez eta batere gustatzen ez zaizkizunez, hain gustuko duzun txokolatea ere erosi dut.

-Bai, ama. Baina hozkailua hutsik dago, hutsik!

-Bai -erantzun zion aitak. - Aizu, Manu, ba al dakizu hozkailuak barrutik garbitu egin behar direla eta noizbehinka elikagaiz bete? Manuk, orduan, pieza guztiak lotu zituen. Nola ez zen lehenago konturatu! Amarengana joan eta estu besarkatu zuen:

«Eskerrik asko txokolateagatik, ama. Badakizu? Gaurko ziakerbak pixka bat gehiago gustatu zaizkit».



II. ERANSKINA

